



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

AGINDUA, 2008ko maiatzaren 6koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2007-2008 aldian Lanbide Hastapeneko Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) egiteko diru-laguntzen deialdia egiten duena.

Apirilaren 24ko 72/2001 Dekretuaren helburua da gizarte-bermeko prestakuntza-ekintzen Alberdi nagusiak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko. Bigarren artikuluan dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimentzen dituen gizarte-bermeko prestakuntza-ekintzei Lanbide Hastapeneko Programak esango zaiela modu generikoan. Halaber, 6. artikulua dio lehenengo ikasturtean egindako ikasketak bigarren kurtsoan sakondu eta zabalduko direla aldi batean; beste aldi bat enpresetan praktiketan jarduteko izango da.

Beraz, lantoki batean (enpresa, edo lantegi batean) eta ikastetxetik kanpo eskaini behar den prestakuntza horrek, ikastetxeen eta ekoizpen-zentroen arteko etengabeko koordinazioa eskatzen du. Ez da inolaz ere ulertuko lanpostu bat bete edo honetan dagoena ordezkatzeko eskulantzat, ikasleak benetako lanpostuetan ikasi edo bere trebetasunak garatzen baditu ere.

Hori guztia burutzeko, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko, beraz, kostu ekonomiko gehigarriak sortuko zaizkie bai ikastetxeari bai lankide diren enpresei, hala nola: enpresetako langile eta instalazioak erabiltzeagatik sortutako gastuak, ikasleak enpresetara bertaratzeak sortutakoak eta lantokiko prestakuntzako irakasle tutoreek ikastetxetik kanpo egin beharreko ikaslearen jarraipenak sortutakoak.

Lantokiko Prestakuntzako Faseak, ikastetxetik kanpo egiten denez, garatzeko lanetan parte hartzen duten eragileei laguntzak emateko programa bat dakar.

Horrela, Urtarrilaren 11n 253/2007 Dekretua argitaratu da Estatuko Boletín Ofizialean. Dekretu horren bidez, arautzen da nola egin praktikaldia enpresetan. Dekretu horren I. kapituluaren arautu egiten dira, batetik, toki-entitate, irabazteko asmorik gabeko erakunde, ikastetxe publiko eta pribatu arrunten eta lantokien (enpresa edo tailerren) arteko harremanak eta, bestetik, parte hartzen duten eragileen funtzioak. Ikasleak, ikastetxeetako tutoreak eta lantokietako instruktoreak. Era berean, II. kapituluaren jarraibideak ezartzen dira, enpresetan prestatzeko praktikaldia egin, jarraitu eta ebaluatzeak dakartzan kostu ekonomikoari diru-laguntzak aplikatzeko.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak bere aurrekontu orokorren barruan jarri du zuzkidura bat, enpresa, edo lantegietako Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) diruz laguntzeko.

Hori dela eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuz onartu zen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen Testu Bateginak,

EAEko Administrazio Publikoaren eremuan diru-laguntzak arautzeari buruzkoa den VI. tituluko xedapenek ezarritakoari jarraiki, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Laguntzen xedea eta izaera.

1.– Lanbide Hastapeneko programen prestakuntza praktikoaren fasea finantzatzeko itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen izaera juridikoa izango dute diru-laguntzek. Enpresa eta tailerretan egiten den Prestakuntza Praktikoaren Fasean parte hartzen duten erakunde edo eragileei eman ahal izango zaizkie diru-laguntza horiek.

2. – Laguntzaren xedea izango da. Ikasleek 2007ko irailaren 1etik 2008ko uztailaren 31 bitartean ikasleek egiten duten prestakuntza praktikoaren fasea.

3.- Eskatzaile aldetik, baldintzak bete direla egiaztatu eta gero emango dira laguntzak.

4.– Xede hori lortzeko 2.000.000,00 euro bideratuko dira. Zenbateko hori, ordea, aldatu ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bestelako diru-laguntza programak gauzatzetik sortu eta agortzen ez diren aurrekontu erabilgarrien arabera, betiere beroriek erabaki aurretik. Horren berri Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen ebazpenaren bidez emango da.

5.– Aurrekontuan hartutako funtsak agortuz gero, laguntzak onuradunen artean hainbanatuko dira, laguntzetara bideratutako gehienezko zenbatekora egokitzeko asmoz.

6.– Laguntzak 2008ko ekitaldiari egotziko zaizkio; nolahi ere, ekitaldiko aurrekontuaren itxierari aplikatu beharreko arauak bete beharko dira.

2. artikulua. – Onuradunak.

1. – Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izango dira Lanbide Hastapeneko prestakuntza praktikoaren fasean parte hartu duten ikasleak, enpresak, tailerrak eta tutoreak.

2. – Laguntza horiek ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio publikok helburu horietako ezarritakoekin, ezta, sare publikoko irakasleei dagokienez, zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainekin ere.

3.-Ezin izango dira onuradun izan Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean daudenak.

3. artikulua. – Aplikazio-eremua.

Agindu honen aplikazio-eremukoak izango dira EAEn kokatuta dauden eta Lanbide Hastapeneko Programak emateko baimen ofiziala duten toki-entitateak, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuak eta ikastetxe publiko zein pribatu arruntak.

4. artikulua.– Eskabidea eta agiriak.

1.- Enpresek, tailerrek, ikasleek eta irakasleek, 253/2007 Aginduan, abenduaren 26koan, egiaztatzen diren eranskinetan beteko dituzte eskabideak.

2.- Agindu honetan adierazten diru-laguntzak jasotzeko, toki-entitateek, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuek eta ikastetxe publiko zein pribatu arruntek aurkeztutako eskabideak bidaliko dituzte.

3.- Agindu honetako laguntzak eskatzeko eskabidea (I. eranskina) zuzenean aurkeztu ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lurralde-ordetzkaritzetan, baita Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzan bertan ere. Eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetakoren baten bidez ere bai. Eskabideak aurkezteko epea egutegiko 30 egunekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4.- Eskabidearekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

– Beste administrazio publikoren batetik datorren diru-laguntzarik jaso ez izana adierazten duen zinpeko aitortpena (II. eranskina).

– Ikasleek eta enpresek Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) garatu dutela ziurtatzen duen agiria, bai eta irakasleek tutoretza-lanak bete dituztela ziurtatzen duen agiria ere (III. eranskina).

– Enpresen, ikasleen eta tutoreen zinpeko aitortpena, ondokoa egiaztatuz: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean ez daudela. Horretarako, IV(a) eranskina, IV(b) eranskina, IV(c) eranskina erabiliko dira, hurrenez hurren.

– 253/2007 Dekretuaren 19.3., 19.4., eta 19.5. artikuluan zehaztutako eskabideak dagokion ikastetxean aurkeztu beharko dira. Horretarako epea hamar egunekoa izango da, praktikak amaitzen diren egunetik kontatzen hasita.

– Tutoretzako zereginetan sortutako gastuak egiaztatzen dituzten frogagiriak, horrelakorik balego.

– PPFan parte hartu duten enpresa zerrenda, bakoitzaren IFK adieraziz, baldin eta Fundazioen izaera juridikoa badute edota edozein Herri Administraziok irabazi-asmorik gabeko Erakundetzat aitortu baditu.

5.- Eskabidea guztiz beteta bidaltzen ez bada edo horrekin batera eskatutako agiriak aurkezten ez badira, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsa konpondu edo beharrezko agiriak aurkezteko. Honako hau ere jakinaraziko zaio: hori egin ezean, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, 30/1992 Legearen 42.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki hartutako erabakiaren ondoren, beste izapiderik gabe, espedientea artxibatu egingo dela.

6.- Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, laguntza-eskabidea betetzeak adierazten du interesdunak baimena ematen duela eskabidean jasotako datuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko fitxategi informatizatuetan sartzeko. Nahi izanez gero, Legean

jasotako sarbide-, zuzenketa-, deuseztapen- eta aurkakotasun-eskubideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan erabil daitezke (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

5. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa eta banatzeko irizpideak.

Jasoko diren zenbatekoak ondoren adierazi bezala zehaztuko dira:

a) Ikasleak:

Ikaslea lantokira joan den egun-kopuruaren arabera emango dira diru-laguntzak. Bakarrik ordainduko da etxetik lantokirainoko distantzia etxetik ikastetxerainokoa baino handiagoa denean ondoko baremoaren arabera:

– 2 eta 10 km arteko aldea: 2,00 euro/eguneko.

– 10 km baino gehiagoko aldea: 4,00 euro/eguneko.

Ezgaitasun fisiko edo psikikoak dituzten ikasleek eta, hori dela eta, joan-etorriak egiteko baldintza bereziak behar dituztenek arestian adierazi dugun baremoak halako 2,5eko diru-laguntza jasoko dute. Halakoetan, beharrezkoa izango da aitortutako ezgaitasunaren egiaztagiria aurkeztea eta ezintasun hori, gutxienez, % 33koa izatea.

b) Enpresak:

Kalkulatzeko, guztira diren orduak eta instruktore kopurua hartuko dira kontuan. Hala ere, gehienezko bat izango da: erakusle bat hiru ikasle edo zatiki bakoitzeko. Ondorengo formularen arabera kalkulatu da; diru-laguntza: 0,42 euro x guztizko ordu-kopurua + 90,00 euro x erakusle-kopurua. Inoiz ez da diruz lagunduko 450 ordu gainditzen dituen ordu-kopururik.

Bai administrazio publikoak, bai erakunde publiko edo ofizialak eta bai beren kapitalaren % 50 edo gehiago publikoa duten enpresak laguntza-mota honetatik kanpo daude.

Enpresei emango litzaizkiekeen diru-laguntzak % 25 handituko lirateke baldin eta praktikan hartutako ikasleak gutxienez % 33ko aitortutako ezgaitasun fisiko edo psikikoak dituztenak balira, eta soilik ikasle horiei dagokienez.

c) Tutoreak:

- Tutoreek irakasleekin egindako tutore-lanak saritzeko, toki-entitate, irabazteko asmorik gabeko erakunde eta ikastetxe pribatuetako Lanbide Hastapeneko irakasle tutoreei, gehienez ere, 25 euro ordainduko zaie ikasleekin egiten dituzten praktiken orduko.

Lan hauengatik tutoreek entitateengandik sariren bat jasoko balute, aurreko paragrafoan ezartzen diren laguntzak dagokion entitateentzat izango dira.

- Tutore-lanen ondorioz ikastetxe publikoetako tutoreek egindako joan-etorrien eta, mantenu-gastuen kalte-ordainak emango dira, Administrazioaren zerbitzurako zerbitzu pertsonalak eskaintzearen kalte-ordainak ordaintzeari buruzko indarrean den araudiaren arabera. 121/2006 Dekretuari jarraituz tutoretzako zereginetan

egindako joan-etorrien gastuak diruz lagunduko dira, 0,29 euro/km hain zuzen ere. Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, bidaia-gastuak (autopista, aparkalekua eta abar), baita bazkari edo afariei dagozkien gastuak ere, gehienez ere 21,00 euro. Kasu horietan guztietan, ezinbestekoa izango da dagozkien frogagiriak aurkeztea.

- Era berean, toki-erakunde, irabazteko asmorik gabeko erakunde eta ikastetxe pribatuen tutoreei kontzeptu bereko gastuak diruz lagunduko zaizkie aurreko paragrafoan ikastetxe publikoetako tutoreentzat adierazitako kopuru beretan.

6. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena eta baliabideak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza izango da.

2.– Laguntza horiek ematea edo ukatzea, hala badagokio, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko du 6 hilabeteko epean, deialdiaren Agindua publikatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik izan ez bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da, 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan, 4/1999 Legean emandako idazketan, xedatutakoari jarraiki.

3.– Ebazpen horren aurka, edo ebazpena hartzeko epea berariazko ebazpenik gabe igaro ondoren, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza sailburuordeari, 30/1992 Legearen 114. artikuluan, 4/1999 Legean emandako idazketan, xedatutakoari jarraiki.

4.– Laguntzak emateko erabakiaren batera ikasle eta enpresa bakoitzari dagozkion kantitateak zehaztuko dira. Ondoren, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak izapidetutako eskarien onuradunen zerrenda jakinaraziko die erakunde lankide guztiei, banatu dezaten.

5.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, eta ebazpena berariaz eta banan-banan jakinarazi gorabehera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da xedapen honen babesean laguntza eman zaien onuradunen zerrenda eta esleitutako kopurua ere adierazita.

7. artikulua.– Ordainketa.

1.– Ordainketa bakar batean ordainduko da laguntza osoa. Horretarako, onuradunek Lantokiko Prestakuntza Garate dutela justifikatu beharko du toki-entitateak irabazteko asmorik gabeko erakundeak edo ikastetxe arruntak aldeztu aurretik.

2.– Diru-laguntzak ematea eta, hala balegokio, ordaintzea honako baldintzapean egingo da: onuradunak amaituta eduki beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntza publikoak itzultzeko espediente nahiz zigor-espediente oro, espediente horiek oraindik izapide-aldian badaude behintzat.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa ezar dakioko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera,

hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Salan, bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Agindu honetan azaltzen ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatutakoa aplikatuko da urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzi zenaren arabera, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko azaroaren 11ko Legea eta azaroaren 26ko 253/2007 Dekretuan xedatutakoa ere.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 6a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,

JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA/ANEXO I

ESKABIDE ORRIA

HOJA DE SOLICITUD

Lanbide hastapeneko prestakuntza praktikoaren fasea egin izanagatiko diru laguntzarako eskabidea
Solicitud de subvención por la realización de la fase de formación práctica de Iniciación Profesional

ESKATZAILEAREN DATUAK/ DATOS DEL/LA SOLICITANTE

Ikastetxeko Izena / *Nombre del centro:*

Ikastetxe pribatuaren zuzendaria edo entitatearen legezko ordezkariaren izena/ *nombre del Director/a del centro educativo o representante legal de la entidad:*

Praktiken arduraduna / *Responsable de prácticas:*

Helbidea/ *Dirección:*

Herria PK / *Población CP:*

Telefonoa / *Teléfono:*

Posta elektronikoa / *Correo electrónico:*

ESKARIA / SOLICITUD

Lantokiko prestakuntzako fasea egitetik sortutako gastuei dagokien diru-laguntza onartzea, honekin batera doazen eranskinetan zerrendatutako ikasle, enpresa eta tutoreentzat. Eskatutako diru-laguntzako kopurua honako hau da:

La aprobación de la subvención en concepto de los gastos originados por la realización de la fase de formación en centro de trabajo para los/as alumnos/as, empresas y tutores/as que se relacionan en anexos adjuntos. El total de la subvención solicitada asciende a:

<i>Subvención total solicitada por el alumnado. Ikasleek eskatutako diru-laguntza osoa.</i>	
<i>Subvención total solicitada por las empresas y talleres. Enpresa eta tailerrek eskatutako diru-laguntza osoa.</i>	
<i>Subvención total solicitada por los tutores y tutoras. Tutoreek eskatutako diru-laguntza osoa.</i>	



<i>Subvención total solicitada. Eskatutako diru- laguntza osoa.</i>	
---	--

_____, 200_ ko _____ aren _____ a.

En _____, a _____ de _____ de 200_.

LHIKeko zuzendariaren oniritzia eta zigilua

V. °. B. °. del/la director/a del CIP y sello.

Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura

Firma del/de la representante legal de la entidad

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA JAUNA / *ILMO. SR. DIRECTOR DE INNOVACIÓN
EDUCATIVA*

II. ERANSKINA/ANEXO II

ADIERAZPENA

DECLARACIÓN

Bestelako diru-laguntzarik jaso ez izanaren adierazpena

Declaración de no percepción de otras ayudas

Ikastetxe kodea / Centro Código:

LHIKeko zuzendaria/ El/la directora/a del CIP:

ADIERAZTEN DU:

DECLARA:

Beste edozein administrazio publikotik ez dela laguntzarik jaso, 200_/200_ aldian Lanbide Hastapeneko lantokiko prestakuntza fasea egitegatik.

Que no se reciben otras ayudas de cualquier otra Administración Pública por la realización de la fase de formación en centro de trabajo de Iniciación Profesional durante el período 200_/200_.

_____, 200_ ko _____ aren _____ a.

En _____, a _____ de _____ de 200_.

LHIKeko zuzendariaren sinadura eta zentroaren zigilua

Firma del/de la director/a del CIP y sello del centro.

III. ERANSKINA/ANEXO III

ZIURTAGIRIA

CERTIFICADO

Prestakuntza Praktikoaren Fasea egin izanaren ziurtagiria
Certificado de realización de la Fase de Formación Práctica

Ikastetxearen izena / Nombre del *Centro*:

LHIkeko zuzendaria / Director/a del CIP:

ZIURTATZEN DU:

CERTIFICA:

Honekin batera doazen eranskinetan zehaztutako ikasleak eta tutoreak izendatu zaizkien enpresetara joan direla adierazitako egunetan, eta, ondorioz, adierazitako orduak bete dituztela enpresetan.

Que los/as alumnos/as, así como los/as tutores/as, que figuran en los anexos adjuntos se han desplazado a las empresas que se les asignan durante los días que se señalan y que, consiguientemente, las empresas les han acogido durante el número de horas que se expresan.

_____, 200_ko _____aren _____ a.

En _____, a _____ de _____ de 200_.

LHIKeko zuzendariaren sinadura eta zentroaren zigilua

Firma del/de la director/a del CIP y sello del centro.

IV. (a) ERANSKINA/ANEXO IV (a)

ZINPEKO AITORPENA/ DECLARACIÓN JURADA

AITORTZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL/DE LA DECLARANTE

Enpresa edo tailerraren titularra / Titular de la empresa o taller:

Enpresa edo taller IFZ / CIF de empresa o taller:

AITORTZEN DUT:

DECLARO:

Ez nagoela administrazio-bidetik edo bide penaletik zigortuta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, ezta deialdi honetara aurkezteko debekupean ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela eta izandako zehapenaren ondorioz.

Era berean, zinpean aitortzen dut deialdi honetara biltzeko aurkeztu ditudan datuak egiazkoak direla.

Que no me encuentro sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni sujeto a prohibición de concurrir a la presente convocatoria a consecuencia de sanción recaída en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Así mismo realizo declaración jurada mediante la que hago constar que los datos aportados al concurrir a la presente convocatoria son ciertos.

Eta hala jasota gera dadin izenpetzen dut _____(e)n, 200_ko _____aren ____ (e)an.

Y para que conste lo firmo en _____, a _____ de _____ de 200_.

Sinadura:

Firma:



IV. (b) ERANSKINA/ANEXO IV (b)

ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

AITORTZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL/DE LA DECLARANTE

Ikaslearen izen-abizenak / Nombre y apellidos del alumno/a:

NAN / DNI:

Ikastetxea / Centro:

AITORTZEN DUT:

DECLARO:

Ez nagoela administrazio-bidetik edo bide penaletik zigortuta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, ezta deialdi honetara aurkezteko debekuean ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela eta izandako zehapenaren ondorioz.

Era berean, zinpean aitortzen dut deialdi honetara biltzeko aurkeztu ditudan datuak egiazkoak direla.

Que no me encuentre sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni sujeto a prohibición de concurrir a la presente convocatoria a consecuencia de sanción recaída en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Así mismo realizo declaración jurada mediante la que hago constar que los datos aportados al concurrir a la presente convocatoria son ciertos.

Eta hala jasota gera dadin izenpetzen dut _____(e)n, 200_ ko _____aren ____ (e)an.

Y para que conste lo firmo en _____, a _____ de _____ de 200_.

Izenpea

Firma

IV. (c) ERANSKINA/ANEXO IV (c)

ZINPEKO AITORPENA
DECLARACIÓN JURADA

AITORTZAILEAREN DATUAK

DATOS DEL/ DE LA DECLARANTE

Tutorearen izen-abizenak / *Nombre y apellidos del tutor o tutora:*

NAN / *DNI:*

Ikastetxea / *Centro:*

AITORTZEN DUT:

DECLARO:

Ez nagoela administrazio-bidetik edo bide penaletik zigortuta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, ezta deialdi honetara aurkezteko debekupean ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea dela eta izandako zehapenaren ondorioz.

Era berean, zinpean aitortzen dut deialdi honetara biltzeko aurkeztu ditudan datuak egiazkoak direla.

Que no me encuentro sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni sujeto a prohibición de concurrir a la presente convocatoria a consecuencia de sanción recaída en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Así mismo realizo declaración jurada mediante la que hago constar que los datos aportados al concurrir a la presente convocatoria son ciertos.

Eta hala jasota gera dadin izenpetzen dut _____(e)n, 200_ ko _____aren ___(e)an.

Y para que conste lo firmo en _____, a _____ de _____ de 200_.

Izenpea

Firma